



**SORALUZEKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

**BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA HAURRENTZAKO ZERBITZUAREN (LUDOTEKA) ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAREN (GAZTELEKUA) KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ ESLEITZEKO.**

**1.- SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA**

**1.1. Haurrentzako eta nerabeentzako udal politika definitzea**

Soraluzeko Udalak haur eta nerabeentzako sustapenerako burutzen duen politikaren xedea ondorengoa da: egonkortasunez, eta jarraikortasunez, Soraluzeko haur eta nerabeei garatzeko aukera ematea, eta haurtzaroaren eta nerabezaroaren arlo bikoitzaz gozatzeko aukera ematea:

- Berezko balioa eta esanahia duen garai gisa; izan ere, pertsona bakoitza bere bizitzaren protagonista, hiritartasun eskubideen subjektu eta gizarte ehunaren ezinbesteko atal da.
- Heldutasunaren, ikaskuntzaren, banakako gaitasunen indartzearen eta giza loturen bitartez, harian-harian, emantzipazio prozesua bideratzen duen aldi gisa. Hau da, heldutasunerako ibilbide arrakastatsua eta atsegina egitea, erabakiak autonomia handiagoaz lortu ahal izateko, eta bizitzako proiektu pertsonala abian jarri ahal izateko.

Prozesu hau bultzatzeko, administrazioak talde hau (haurtzaroa eta nerabezaroa) osatzen duten adin tarteak etengabe artatzeko beharrezkoa den zerbitzu sorta eratzen du.

Soraluzeko Udalak, bada, bi zerbitzu ditu: Haurrentzako zerbitzua (Ludoteka) eta Nerabeentzako zerbitzua (Gaztelekua).

**1.2. Zehar-lerroak**

Sustapen politikak zehar-lerrotzat jotzen ditu egiten diren jarduera guztietan kontuan izan behar diren ondorengo lan-ildoak:

- 1.2.1. Hizkuntza normalizazioa
- 1.2.2. Hezkidetza
- 1.2.3. Inklusioa eta integrazioa
- 1.2.4. Komunikazio ez bortitza

**1.3. Haurrentzako Zerbitzua eta Nerabeentzako Zerbitzua**

**Haurrentzako Zerbitzua:**

Goiz-goizetik, haurren garapenean, garrantzia dute balio hezitzailea duen jolasean oinarritzen diren denbora eta lekuek.

Zerbitzu honen xedea da denbora eta gune horietarako eskaintza egonkorra egitea. Proposamen hau haurtzaroan zehar egokitzen da, eta aukera ematen dio Administrazioari bere proiektuaren misioa betetzeko.

**Nerabeentzako Zerbitzua:**

Nerabezaroan areagotu egiten da pertsonen propiotzat hartzen dituzten denbora eta guneak izateko premia.

Nerabeentzako zerbitzuaren xedea da denbora eta gune horietarako eskaintza egonkorra egitea, eta aldi berean, hurbileko pertsona helduei errespetuz gerturatzeko aukera ematea, baita nerabezaroak dituen berezitasunei aurre egiteko laguntza eta erraztasunak ematea ere.

#### **1.4. Haurrentzako eta Nerabeentzako zerbitzuen jarduera esparruak**

Haurren, nerabeen eta gazteen premiak etengabe antzemateko beharra dagoela kontuan izanik, zerbitzuek jarduera esparru handiak edo jarduera mota zabalak eskaintzen dizkiete hartzaillei, horien premiei erantzun ahal izateko.

- Informazioa
- Orientabidea
- Akonpainamendua
- Aisiarako hezkuntza
- Adierazpenerako eta partaidetzarako kanalak
- Sorkuntzarako eta ekoizpenerako laguntzak

Arestian adierazitakoaz gain, Haurrentzako eta Nerabeentzako zerbitzuak, hartzailleekiko zuzeneko elkarreragina sustatu ez ezik, lankidetzarako eta sareko lanerako dinamikak bultzatu ere egingo ditu hainbat esparrutan, haurren eta nerabeen garapen eta emantzipazio prozesuetan, beraien eskubideez gozatzeko garrantzitsuak diren sistemak eta politikak kontuan izanik, eta betiere, hartzaileren partaidetza aktiboa izanik. Ildo horretatik, metodologia parte-hartzailea lanabes oinarrikoa eta estrategikoa izango da zerbitzu bakoitzean.

Haurrentzako eta nerabeentzako jarduera arloetariko bakoitzaren edukia ondorengoa izango da:

##### **1.4.1. Informazioa**

Datu erabilgarriak eta egiazkoak dituen informazioa, garaiz eta nahikoa izango den zenbatekoan, eraginkortasunez eta era antolatuan eta esanguratsuan emandakoa, haurrek eta nerabeek beraien esku dauden baliabideak eta aukerak eskuratu ahal izan ditzaten (kultura, heziketa, osasuna, e.a.).

##### **1.4.2. Orientabidea**

Orientabidea haurrentzako eta nerabeentzako laguntza bat da, haien bizitzako hainbat arlori buruzko aukerak identifikatzen eta erabakiak hartu ahal izaten lagunduko diena. Batzuetan, pertsona beste eragile edo erakunderen batera bideratuko da, duen premiari hobeto erantzun ahal izateko.

##### **1.4.3. Akonpainamendua**

Akonpainamendua nolabaiteko egonkortasuna eta jarraikortasuna izan behar duen harremana da, haurrek eta nerabeek erabakiak hartzeko, baliabideak erabiltzeko, jarduerak egiteko, aukerak bereizteko eta loturak egiteko laguntza emango duena. Akonpainamenduak pertsonen arteko elkarreraginean oinarritzen den harremana eskatzen du, eta pertsonen arteko konfiantzan oinarritzen da.

##### **1.4.4. Aisiarako heziketa**

Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuak haurren eta nerabeen aisian egiten den esku-



**SORALUZEKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

hartzea jarriko du abian. Esku-hartze hau sortzailea eta atsegina izateaz gain, esku-hartze honen xedea da ageriko helburu hezitzaileak lortzea (hau da, bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak eskuratzea edo garatzea xede duen esku-hartzea).

**1.4.5. Adierazpenerako eta partaidetzarako kanalak**

Jarduera honen bidez benetako aukerak sortu eta dinamizatuko dira, haurrek eta nerabeek Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuei buruzko eta beraien bizitzetan esanguratsuak izan daitezkeen hainbat arlori (kultura, hezkuntza, osasuna, e.a.) buruzko iritziak eman, proposamenak egin, erabakiak hartu, erantzukizunak bere gain hartu, kudeatu edo elkarren artean kudeatu, eta nolabait, garatu ahal izan ditzaten.

**1.4.6. Sorkuntzarako eta ekoizpenerako laguntzak**

Haurrentzako eta Nerabeentzako laguntzak benetako aukerak sortuko eta dinamizatuko ditu, haurrek eta nerabeek beraien gaitasun sortzailea eta ekoizlea bultzatu eta bideratu, eta halaber, jarduerak eta proiektuak egin eta bisualizatu ahal izan ditzaten. Helburua da, haurren eta nerabeen gogokoak izan daitezkeen banakako jarduerak eta kolektiboak gauzatzeko aukera ematea.

**2.- HELBURUA**

Kontratu honen helburua da Soraluze udalerrian, Gipuzkoako Haurren, Nerabeen eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren (Gaztematika) baitan, Haurrentzako eta Nerabeentzako zerbitzuen kudeaketa esleitzea.

**2.1. Zerbitzu bakoitzaren helburuak**

**Haurrentzako Zerbitzua:**

**-Haurrekin beraiekin lotutako helburuak:**

- 1.- Beraien haur izaera ingurune desformalizatu eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.
- 2.- Beraien denbora, aisia, era aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasuntsuan gozatea, ongizatea eta garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko.
- 3.- Bizitzarako oinarrikoak diren jarrerak eta trebetasunak eskuratzea eta garatzea (hala nola, kognitiboak, sozialak, psikomotrizitatekoak, afektiboak e.a.).
- 4.- Beraien artean haur-izaeren aniztasuna ezagutu eta haur izateko modu desberdinak onar ditzaten erraztea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.
- 5.- Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea, suspertzea.
- 6.- Trantsizioak erraztea (hautzarotik nerabegarora) erritmo eta egoera desberdinak kontutan hartuta.
- 7.- Beraien inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, errespetatzera eta nola aldatu pentsatzera bultzatzea.
- 8.- Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.
- 9.- Jakin-nahia bultzatzea eta oinarriko informazioa iristen laguntzea, gizartearen partaide aktiboak izan daitezen.

10.- Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden helduak hurrekin harremanetan jartzea, haurren heltze prozesua erraztu eta laguntzeko.

11.- Hainbat gaitasunen garapena sustatzea: hala nola, erabakiak hartzea, iritzia ematea eta parekoen taldearekin eztabaidan jardutea, duten gaitasunaren arabera, eta haien interesekoak diren gaietan.

**-Helduen Gizartearekin lotutako helburuak:**

1.- Gizarteari haurtzarora zer den eta hurrek beraien eskubideetan oinarrituta etapa horretan dituzten beharrak zein diren azaltzea, aukerak sortuz.

2.- Aisialdi hezitzailearen ideia familien artean hedatzea. Gurasoekin, beste profesional batzuekin nerabeak aktiboki hezteko modu egokiak lantzea.

**-Beste profesional batzuekin lotutako helburuak:**

1.- Hurrez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatzea.

2.- Hurrei arreta emateko herrialde mailako sustapen sarearen lan-sistema komunitario batean parte hartzea.

**Nerabeentzako zerbitzua:**

**-Nerabeekin beraiekin lotutako helburuak:**

1.- Beraien nerabe-izaerak, ulertzen eta kudeatzen laguntzea.

2.- Beraien nerabe-izaerak ingurune desformalizatu eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.

3.- Beraien denbora, aisia, era aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasuntsuan gozatzeko, ongizatea eta garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko.

4.- Jarduerak antolatzeke, nor bere burua antolatzeke eta beren denborak kudeatzeko nerabeek egiten dituzten proposamenak jaso eta erraztea.

5.- Beraien artean nerabe-izaeren aniztasuna ezagutu eta nerabe izateko modu desberdinak onar ditzaten erraztea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.

6.- Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea, suspertzea.

7.- Trantsizioak erraztea (haurtzarotik nerabegarora eta nerabegarotik gaztarora), erritmo eta egoera desberdinak kontutan hartuta.

8.- Arriskuen kudeaketaren ikaskuntza lantzea.

9.- Beraien inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, errespetatzera eta nola aldatu pentsatzera bultzatzea.

10.- Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.

11.- Jakin-nahia bultzatzea eta oinarriko informaziora iristen laguntzea, gizartearen partaide aktiboak izan daitezen.



**SORALUZEKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

12.- Ideien sorkuntza eta hedapena suspertu eta ahalbidetzea.

13.- Sorkuntza suspertu eta ahalbidetzea (nerabeen adierazpen gisa eta arte-sorkuntza moduan).

14.- Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden helduak nerabeekin harremanetan jartzea.

15.- Harreman eragingarriak lantzea, nerabeen eremuetan, presentzia izanez; jarduerak dinamizatzuz; laguntza-eskaintzen bidez.

16.- Beren autonomia suspertzea eta beren jokaeren ondorioak ikus ditzaten erraztea, nor bere erantzukizuna landu ahal izateko.

**-Helduen Gizartearekin lotutako helburuak:**

1.- Gizarteari nerabezaroa zer den eta haurrek beraien eskubideetan oinarrituta etapa horretan dituzten beharrak zein diren azaltzea, aukerak sortuz.

2.- Aisialdi hezitzailearen ideia familien artean hedatzea. Gurasoekin, beste profesional batzuekin nerabeak aktiboki hezteko modu egokiak lantzea.

**-Beste profesional batzuekin lotutako helburuak:**

1.- Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatzea.

2.- Nerabeei arreta emateko herrialde mailako sustapen sarearen lan-sistema komunitario batean parte hartzea.

## **2.2. Bestelako zehaztapenak**

Zerbitzu bakoitzean egingo den eskaintza artatzen diren erabiltzaileen premietan eta eskaeretan oinarrituko da. Hala, ezinbestekoa izango da premiak eta eskaerak antzematea; izan ere, horien gainean eraikiko dira ekintza programatikoak.

Zerbitzuak agiri honen hasieran aipatu diren sustapen politikarako 6 jarduera esparruak edo arloak garatuko direneko guneak dira.

Horretaz gain, kontuan izan behar da, zerbitzuen hartzaileen zuzeneko partaidetza bultzatuko dela beraien interesekoak diren gaietan, eta horretarako, prozesuak hartzaileen gaitasunetara eta aukeretara egokituko direla. Hala, partaidetza fase eta zeregin guztiak biltzen dituen lan-mota zentral eta estrategikoa izango da.

Zerbitzuetako jarduerak azpiegituren barruan egingo dira, baita aire zabalean ere.

Zerbitzuek hainbat estrategia jarriko dituzte abian, haurrak eta nerabeak, bai udalerrian, bai inguruko udalerrietan haiei zuzentzen zaizkien zerbitzu, programa eta ekipamendu guztietara hurbil daitezen.

## **3.- ZERBITZUEN HARTZAILEAK**

- Haurrentzako zerbitzua (Ludoteka): udalerrian dauden 4-12 urte arteko haur guztiei

eskainiko zaie.<sup>(1)</sup>

- (1) "Gipuzkoako haur eta gazteen sustapenerako sistema" txostenak zehazten du hamabi urtera arteko haurrena dela ludoteka-zerbitzuaren hartzaileen profila. Nolanahi ere den, antolaketa arrazoiak tarteko, 10-12 urte bitarteko haurrak Gaztelekuko hezitzaile taldeak artatuko ditu, Gaztelekuko instalazioetan. Adin-tarte honi dagokion proiektua "Nerabeentzako Zerbitzua Kudeatzeko Proiektua"ren barruan jaso beharko du lizitazio-gileak, ahalik eta trataerarik berezituena emanda jaso ere.

- Nerabeentzako zerbitzua (Gaztelekua): udalerrian dauden 13-17 urte arteko nerabe guztiei eskainiko zaie.

Hain adin tarte zabal horietan sartzen diren haurrek eta nerabeek dituzten errealitateen, gaitasunen eta premien artean dagoen aldea kontuan izanik, eskaintza berezitua izango da eta adin tarte bakoitzari egokitu beharko zaio.

Udalerriko eskaera artatu ostean, zerbitzu guztietan beste udalerrri batzuetako haurrak eta nerabeak onartzeko aukera aztertu ahal izango da.

Erabiltzaileen aniztasuna izango da kontuan (adina, jatorria, ikastetxea, generoa, e.a.), eta horretarako, estrategiak etengabe antzeman, diseinatu eta aztertuko dira, aniztasun hori lortu ahal izateko.

Horretaz gain, haurren eta nerabeen heziketaren ardura partekatzen duten pertsona helduak (gurasoak, hezitzailea, irakasleak, e.a.) zerbitzuen zeharkako hartzailetzat hartuko dira.

#### **4.- ZERBITZUEN ESKAINTZA**

Zerbitzuen eskaintza Udalak haur eta nerabeentzat ezarri dituen helburuak lortzera bideratuko da.

Zerbitzuen arduradun nagusia Sorraluzeko Udalaren Haur eta Gazteen Saila izango da (zinegotzia eta arloko teknikaria).

Esleipendunak udal arduradunek zehazten dituzten orientabideak eta arauak jarraituko ditu. Orientabide horiek baldintza teknikoan agiri honetan zehaztuko dira, bai Haur eta Gazteen Udal Sailak dituen misioari, irizpideei eta printzipioei eta zehar-lerroei jarraiki, nahiz zerbitzu motei, jarduera esparruei eta abarrei jarraiki.

Zerbitzuak eskaintzean, bi esparru handi bereizi behar dira: alde batetik, erabiltzaileekin zuzeneko arretan egin behar den lana, eta bestetik, barruko lana izenez biltzen den lan multzo handia (planifikazioa, koordinazioa, ebaluazioa, prestakuntza, e.a.).

##### **4.1. Zuzeneko arreta**

Zerbitzu bakoitzean, erabiltzaileei agiri honen hasieran aipatu diren sei jarduera motak edo jarduera esparruak eskainiko zaizkie. 6 jarduera eremu hauek zerbitzu bakoitzean proposatzen diren helburuak lortzeko lanabesak edo tresnak dira.

Nolanahi ere, alde batetik, adin tarte desberdinak, eta bestetik, hartzaileen ezaugarriak adinaren arabera aldatzen direla kontuan izanik, jarduera esparruei emango zaien lehentasuna ere aldatu egingo da, eta erabiltzaileen premietara egokituko dira. Ildo horretatik, haurrentzako zerbitzuaren muina aisia hezitzailea izango da. Aitzitik, nerabeen



**SORALUZeko UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

zerbitzuari dagokionez, aisia hezitzailearen esparruak garrantzitsua izaten jarraitzen badu ere, beste esparru batzuek indar handiagoa hartuko dute, hala nola, "akonpainamenduak" edo "gazteen adierazpenerako eta partaidetzarako kanalak". Horrexegatik, arreta adin bakoitzean berariazkoak eta bereziak diren trantsizioei egokituko zaie, zerbitzuen jarraikortasuna oinarritzat harturik.

Jarduerak programatzerakoan, hainbat une gorde beharko dira erabiltzaileek libreki jardun dezaten. Baina erabiltzaileen eskaeren eta premien azterketa etengabea izango da programazioaren oinarria.

Hezitzailearen eta erabiltzaileen arteko harremana, baita erabiltzaileen artekoa ere, izango da zerbitzuen oinarri nagusia. Horrexegatik, ezinbestekoa izango da erabiltzaile bakoitzaren berariazko esparruak eta guneak errespetatzea, baina uneoro, hezitzaileen hurbiltasun enpatikoa eta erreferentziatzko ezaugarria mantenduta.

## **4.2. Barruko lana**

### **4.2.1. Planifikazioa**

Planifikazioa prozesu bat da, zeinaren bidez, eta hainbat aurrekari jakin kontuan hartuta (zerbitzuen aurretiatzko ebaluazioak, Haur eta Gazteen Sailaren plangintza, erabiltzaileek egiten dituzten proposamenak eta balorazioak, errealitatearen azterketa eta haurren eta nerabeen premiak), erabakiak hartzen baitira, lortu nahi diren helburuak nahiz helburu horiek lortzeko modua zehazteko.

Plangintzan, helburuak ez ezik, zerbitzu bakoitzak egiten dituen jarduerak ere jasoko dira (zuzeneko arreta, programazioak, barruko lanak, e.a.). Urteko planak eta hilerokoak egingo dira, bai zuzeneko arretarako, bai kudeaketa jardueretarako. Planak horiek ikasturtearen hasieran eta hileroko jarraipen bileretan (Irailean urrikoa,...) aurkeztuko dira.

### **4.2.2. Ebaluazioa**

Ebaluazioa prozesu bat da, bere baitan zerbitzu bakoitzari, horien koordinazioari eta inguruneari buruzko informazioa lortzeko eta prozesatzeko egiten den guztia hartzen duena, eta jarduera ziklo berri bati aurre egiteko deskribapenak, azterketak eta balorazioak egiteko burutzen dena.

Ebaluazioa jarraitua eta integratua izango da, eta zerbitzu bakoitzaren funtzionamenduari buruzko datuak jasoko dira: datu kuantitatiboak (estatistikoak, asistentziari buruzko erregistroak, jardueretako partaidetzari buruzko datuak, jarraipen fitxak...) eta datu kualitatiboak (erabiltzaileen asebetetze maila, parte hartzeko erak...). Horretarako "Zerbitzuen jarraipena egiteko dokumentua" erabiliko da, hileroko, hiru-hileroko eta urteko txostenak aurkeztuz.

Gipuzkoako Haurren, Nerabeen eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren (Gaztematika) asmoetako bat haurren, nerabeen eta gazteen parte-hartzea sustatzea izanik, zerbitzuen funtzionamenduaren ebaluazioa egiterako orduan oso kontuan hartu beharko da haur eta nerabeen iritzia eta berau modu sistematikoan jaso.

### **4.2.3. Koordinazioa**

Koordinazioaz ari garenean, ondorengo gaiei buruz eta koordinazio maila desberdinei buruz hitz egiten dugu:

#### **-Barne koordinazioa:**

1.- Zerbitzu bakoitzeko hezitzaileen artean, egindako esku-hartzea baloratzeko, hurrengo

esku-hartzea prestatzeko, erabiltzaileen premiak antzemateko, eta bidezkoa denean, zerbitzua planifikatzeko eta ebaluatzeko.

2.- Haurrentzako eta Nerabeentzako zerbitzuen artean, zerbitzuen jarraikortasuna planifikatzeko eta baloratzeko eta zerbitzuen arteko trantsizioa prestatzeko.

#### **-Udalarekiko koordinazioa:**

1.- Zerbitzuen jarraipena egiteko beharrezkoak izan daitezkeen bilerak, egoerak honela eskatzen duenean eta aldeetako edozeinek proposatuta.

2.- Hileroko bilerak zerbitzuen jarraipena egiteko. Bileretan, Haur eta Gazteen Sustapeneko teknikariak eta enpresa esleipendunaren teknikariak parte hartuko dute. Teknikariak deialdia egin, eta akta jasoko du. Enpresak hileroko jarraipen-fitxa helaraziko dio Udalari, bat zerbitzu bakoitzeko. Gaztelekuko hezitzaile taldeak artatzen duen LH5-LH6 mailako taldeari dagokion fitxa ere modu bereztuan aurkeztuko da.

3.- Tokiko Foroaren hiruhileroko bilerak. Bertan sustapenerako teknikariak, enpresa esleipendunaren teknikariak, bi zerbitzuetako lan-taldeek eta arloko zinegotziak parte hartuko dute, lan ildoak partekatzeko, informazioa trukatzeko eta haurren eta nerabeen premiei eta eskaerei buruzko hausnarketa egiteko. Teknikariak deialdia egin, eta akta jasoko du. Enpresak hiru hileroko jarraipen-txostena helaraziko dio Udalari, bat zerbitzu bakoitzeko. Gaztelekuko hezitzaile taldeak artatzen duen LH5-LH6 mailako taldeari dagokion fitxa ere modu bereztuan aurkeztuko da.

Bilerez gain, Udalaren, enpresa esleipendunaren eta zerbitzuak eskaintzen dituen taldearen arteko harremanak arinak izango dira, adibidez, posta elektronikoz, telefonoz, e.a.

#### **-Kanpo koordinazioa:**

1.- Beste sistema batzuekiko koordinazioa:

Herrian nahiz eskualdean, adin tarte berarekin lan egiten duten sistemekin, zerbitzuekin eta erakundeekin koordinatuko dira (oinarrizko gizarte zerbitzuak, ikastetxeak e.a.), maiztasun eta helburu jakin batzuekin.

2.- Beste udal sail batzuekiko koordinazioa:

Beste udal sail batzuekiko koordinazioa izango da: sustapenaren ikuspegia txertatzeko eta udalak haurrei eta nerabeei egiten dien eskaintza artikulatzeko eta eskaintza hori koherente izateko.

3.- Beste eragile batzuekiko koordinazioa:

Zerbitzu bakoitzaren erabiltzaileekin zerikusia duten eragileekiko, eta halaber, zerbitzu bakoitzaren lanerako interesekoak diren eragileekiko koordinazioa izango da (gurasoak, kultur eta kirol elkarteak, aisialdikoak, e.a.).

Egia esan, zerbitzuek arreta berezia eskainiko diote familiekiko etengabeko harremanari, eta inguruan presente dauden beste eragile edo zerbitzuekin lankidetzaz izateari eta sareko lana egiteari ere bai.

#### **4.2.4. Komunikazioa**

Zerbitzu bakoitza eskaintzaren eta jarduera zehatzen zabalkundea egiteaz arduratuko da, eta hainbat kanal ezarriko dira, informazioaren eta zerbitzuaren erabiltzaileen eta hartzaileen arabera (oharrak, egunkariak, herri komunikabideak, Udalaren webgunea, sare sozialak...). Informaziorako materialean (ohar, grafikoak, albisteak eta artikulatuak) "Soraluzeko/ (...) Udal Ludoteka" eta "Soraluzeko/ (...) Udal Gaztelekua" moduan izendatu beharko dira zerbitzu biak, hurrenez hurren. Halaber, Udalaren armarrria edo logotipoa txertatu beharko da, eta





## SORALUZEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

---

zerbitzuaren titularra Udala dela adierazi beharko da.

Zabalkundea egiteko modua aurrez Udalarekin adostuko da, lizitaziogileak zerbitzuen eskaintzarekin batera aurkeztu behar duen "Zerbitzuaren hedapena egiteko komunikazio planteamendua" oinarri moduan hartuta.

Gainera, zerbitzuek era aktiboan jardungo dute, Udalarekin batera, Haur eta Gazteria Sustapeneko udal politikaren eta Gipuzkoako filosofiaren edo lurralde esparruaren zabalkunde orokorra diseinatzeko eta egiteko.

### **4.2.5. Ezagutza eta kalitatea kudeatzea**

Langileen taldeak beharrezkotzat hartzen diren zerbitzuen kudeaketa hobetzea xede duten prozeduretan eta metodoetan parte hartuko du, eta prozedura bihur daitezkeen prozesuak estandarizatuko ditu.

Horretaz gain, Gipuzkoako lurraldean, Gaztematika esparruaren baitan, sortzen diren Foroetan parte hartuko du, Haurrentzako Zerbitzuetako Hezitzaileen eta Nerabeen Zerbitzuetako Hezitzaileen foroetan, antzeko zerbitzuetan egiten diren dinamiken berri izan dezaten, zerbitzuentzako interesekoak diren eztabaida teorikoetan edo praktikoetan parte har dezaten eta Soraluzeke zerbitzuen ikuspegia eman dezaten.

Era berean, haien funtzioak egiteko egokitzat jotzen diren prestakuntza eta gaikuntza ikastaroetan eta saioetan parte hartuko du.

## **5.- AZPIEGITURAK ETA BALIABIDE MATERIALAK**

Baliabide materialei dagokienez, Udalak, zerbitzuak bideratu ahal izateko lokalak eta lokal horietan dagoen oinarrizko ekipamendua jarriko du (zerbitzuak eskaintzen hasi aurretik, ekipamenduetako materialaren eta tresnen inbentarioari buruzko akta egingo da).

Udalak zerbitzu bakoitzerako jarriko dituen azpiegiturak ondokoak izango dira:

- Ludoteka: sarrera independentea duen lokala eta bertan dagoen ekipamendua, Baltegieta 2an kokatuta dagoena.
- Gaztelekua: sarrera independentea duen lokala eta bertan dagoen ekipamendua, Baltegieta 2an kokatuta dagoena.

Gainera, Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu zerbitzuak behar bezala eskaintzeko beharrezkoak diren altzariak, materiala, informatikako ekipamendua eta programak.

Administrazioak esleipendunaren esku jarriko dituen, informazio, dokumentazio, programa informatiko eta gainerako baliabide edo datu guztiak administrazioaren jabetzakoak izango dira, eta kontratatutako lanak egiteko beharrezkoak diren heinean bakarrik erabili edo erreproduzitu ahal izango dira. Esleipendunak hitzemango du kontratua bukatutakoan itzuli edo suntsitu egingo dituela.

Programazio gastuak (jarduerak egiteko kontratazioak, jarduerak egiteko beharrezkoa den materiala, zabalkunde kanpainak egiteko materiala, e.a.) lizitazio prezioaren barruan sartuko dira. Enpresa esleipendunak, bestalde, dagozkion erosketak eta mandatuak kudeatuko ditu.

Material suntsigarriari dagozkion gastuak ere, hala nola, bulegoko materiala, kontratuaren

prezioaren barruan sartuko dira.

Gastu hauek guztiak txosten ekonomikoan aurkeztu beharko dira, uztailaren bukaeran, urteko balantze ekonomikoan.

Lokalak zein bertako ekipamendu eta materiala zerbitzuaren jarduerak aurrera eramateko baino ezin izango dira erabili. Enpresa esleipendunak ezin izango du enpresaren egoitza moduan erabili. Inoiz lokalaren bestelako erabilera bat egin nahi izango balu, Udalaren baimena beharko luke. Enpresa esleipendunak ezin izango dio hirugarren bati ez lokala erabiltzeko ez eta bertako ekipamendu zein materiala erabiltzeko baimenik eman.

## **6.- ZERBITZUETAKO LANTALDEA ETA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK**

### **6.1. Lantaldea**

Zerbitzuak era egokian eskaini ahal izateko esleipendunak lantalde bat izango du. Lantaldearen curriculum akademikoa eta profesionala egokia izango da agiri honetan jasotzen diren zerbitzuen beharrianak estaltzeko.

Haurrentzako Zerbitzuko eta Nerabeentzako Zerbitzuko lantaldeak hiruna hezitzailek osatuko dituzte, guztien lan-karga berdina izango ez badira ere. Haurrentzako Zerbitzuko hezitzaileetako bat Udal langilea izango da, eta besteak enpresa esleipendunaren langileak.

Beharrezkoa baldin bada, eta Udalaren oniritziarekin, zerbitzua edo langileak beste era batera antolatuko dira. Era berean, Udalaren oniritziarekin, zerbitzuen artean, beste era batean antolatu ahal izango dira langileak.

Ondorengoa izango da kontratuaren iraunaldian lantaldea osatuko duten langileek izan beharko duten gutxienezko lan-jarduna:

#### **Ludotekako lantaldea:**

Udal langilea (Astean +/-19 ordu)<sup>(2)</sup>; Enpresaren langilea 1 (Urtean 734 ordu, astean +/-17 ordu); Enpresaren langilea 2 (Urtean 608 ordu, astean +/-14 ordu)<sup>(3)</sup>.

- (2) Udal langilearen egutegi, lan-ordu kopurua eta bestelakoak kontratuaren eranskinetan jaso dira. Egutegian zehaztutako lan-egunetan langileak arratsaldean egingo du lan, 15:00-20:00 ordu-tartean.
- (3) Langile honen lan-ordu kopurua zerbitzuan matrikulatzen den haur kopuruaren arabera aldatu ahal izango da, zerbitzuan gehitutako edo galdutako zerbitzu-ordu bakoitzeko 3 orduan gehituz edo murriztuz langilearen lan-ordu kopurua. (8 zerbitzu ordurako 14 orduko jarduna, 6 zerbitzu ordurako 11 orduko jarduna, 10 zerbitzu ordurako 17 orduko jarduna). Esleipen-prezioa astean 14 orduko lan-jarduna aurreikusiz ezarri da eta hileroko likidazioak egiterakoan doitu da, arestian aipatu irizpideak oinarri hartuta.

#### **Gaztelekuko lantaldea:**

Enpresaren langilea 3 (Urtean 441 ordu, Astean +/-13,5 ordu); Enpresaren langilea 4 (Urtean 432 ordu, astean +/-13,5 ordu); Enpresaren langilea 5 (Urtean 423 ordu, astean +/-13,5 ordu).

Lantaldeko langileetako bat udal langilea da. Langile honen soldata eta bestelako gastuak Udalak hartuko ditu bere gain eta ez dira kontratuaren prezioan sartuko. Halaber, udal langilearen hierarkiako arduradun gorena Udaleko pertsonal burua izango da; hots, Alkate-Udalburua. Hala ere, langilearen eguneroko jarraipena enpresa esleipendunak egingo du, berau izango delarik egunerokoan langile honen jarduna gidatu eta koordinatuko duena, bai eta beronen eguneroko lan-jarduna eta zereginak zehaztuko dituen ere, Haur eta



**SORALUZEKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

Gazteen Sustapen Sailaren ardura duen teknikariaren adostasunarekin eta Udalak langile honentzat erabakitako lan-ordu, egutegi zein ordutegia errespetatuz. Langilea ludotekako lantaldeko kide bada ere, beharrezkoa izatera, enpresa esleipendunak LH5-LH6 taldeko haurrekin lan egitea eskatu ahal izango lioke, Udalak langilearentzat zehaztutako egutegi eta ordutegia errespetatuz beti ere.

Udal langilearen eta enpresa esleipendunaren artean desadostasunik sortzera, udal langileak Haur eta Gazteen Sustapeneko Sailaren ardura duen teknikariarengana jo beharko luke, honek erabaki dezan.

Enpresa esleipendunak udal langileari ezarritako lan-jardunen eta lan-ordutegiaren gaineko informazioa helaraziko dio Udalari biek burutuko duten lehendabiziko jarraipen bileran. Halaber, udal langileak egindako lan-orduen txostena helaraziko dio hilerok.

Zerbitzuak eskainiko dituzten langileei Gipuzkoako Esku-hartze Sozialerako Hitzarmen Kolektiboan jasotako baldintzak ezarriko zaizkie, 2. edo 3. talde profesionalari dagozkionak hain zuzen ere, bakoitzaren taldea egiaztatu duen titulazioaren arabera ezarriko delarik. (4)

- (4) Esleipen-prezioa kalkulatzeko orduan, 2. talde profesionalari dagozkion ordainsariak erabili dira kalkulurako oinarri moduan. Nolanahi ere den, hezitzaile bakoitzaren ordainketa-maila (2. edo 3. taldeari dagokiona) egiaztatzen duen titulazioaren arabera izango denez, 2. taldetik behera dauden hezitzaileen ordainsarien eta esleipen-prezioa kalkulatzeko erabili direnen arteko aldea hileroko likidazioak egiterakoan doituko da

Zerbitzuak eskainiko dituzten langileek, gutxienez ondoko ezaugarriak izan beharko dituzte:

- Goi mailako prestakuntza, unibertsitate mailakoa ez izan arren (Gizarte Zientzien arloko Goi-mailako Heziketa Zikloak edo Batxillergoa).

Bete beharreko baldintzak, baina, ezberdinak izango dira subrogatuta geldituko diren langileak aldi baterako zein behin betiko ordezkatu beharko dituzten langileen kasuan, gutxienez ondoko ezaugarriak izan beharko dituztelarik: Gizarte Heziketako edo Gizarte Laneko Titulazioa, edo, bestela, Gizarte Zientzien arloan antzekoa den unibertsitate mailako erdi edo goi mailako beste hauetako titulazioaren bat (Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, Psikopedagogia).

Lanean arituko diren pertsona guztiek C1 maila egiaztatu beharko dute euskararen ezagutzari dagokionean, edo horren baliokidea den titulu ofizialen bat izan. Agiri bidez egiaztatzen ez duten hezitzaileei maila-proba egingo die Udalak.

Enpresa esleipendunak zerbitzuetako langileen titulazioak helaraziko dizkio Udalari kontratua sinatzeko garaian, baita langileen edozein ordezkaketa egiten duen momentuan, ordezkoez goian zehaztutako ezaugarriak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Enpresa esleipendunak hurrengo egunetik aurrera ordezkatu dituzten zerbitzuetako langileen baja, norberaren gaietarako baimen eta antzerakoak, zerbitzuan beti beharrezko giza-baliabideak egon daitezzen.

## **6.2. Funtzioak**

Zerbitzu bakoitzeko hezitzaileen funtzioak ondorengoak izango dira:

### **Haurrentzako Zerbitzua:**

**Haurtzaroa eta haurrak:**

- Haurren beharrak ebaluatzeko prozesuan parte hartzea.
- Zerbitzuaren funtsatze fasean parte hartzea.
- Haur guztien parte-hartzea sustatzea zerbitzuan eta beraiei eragiten dieten eremuetan.
- Haurren familiengana hurbiltzea.
- Haurrez arduratzen diren beste eragileei zerbitzuan parte-hartzen laguntzea.

**Esku-hartze hezitzailea:**

- Haurraren garapen integrala ahalbidetzea.
- Familia-inguruneak haurrei ematen dizkienaz gain, beste hezkuntza-aukera batzuk eskura izan ditzatela ahalbidetzea.
- Bidelagun izatea.
- Eguneroko eginbeharretan etengabeko autonomia garatzen laguntzea.
- Haurren hezkuntza-bereiztasuna ulertzea, hezteko, laguntzeko eta horiengan eragina izateko.
- Bizitzako lehen etapentzat funtsezkoak diren irizpideak eta arreta moduak sistematizatzea.
- Zerbitzuaren zeharkako lerroak (Hezkidetzak, euskararen normalizazioa eta inklusioa) sendotzea.
- Prestakuntza eta trebakuntza-plana garatzea.
- Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko konpromisoa hartzea.

**Hezkuntza-markoak:**

- Taldeko haur bakoitzarekin harremanak sortzea.
- Harreman ludikoa garatzea, baliabide eta jarduera desberdinetan loturak sortuz, sozialki partaide izateko eta hezkuntza-aukerak ahalbidetzeko.
- Haurren beharretan eta eskaeretan oinarritutako programazioa garatzea, haien motibazioen, kezken eta ekimenen arabera.
- Zerbitzuaren ekintza-arloak aztertzea, osatzea, proposamenak egitea eta garatzea.
- Familiei laguntzea.

**Eremu komunitarioa:**

- Komunitatean hurrenganako interesa piztea.
- Ikuspegi komunitarioa, osoa eta integratzailea, zerbitzuan garatzen diren jarduera guztietan txertatzea.
- Zerbitzuaren komunikazio-beharretan eta zabalkundearen laguntzea.
- Komunitatean parte hartzea, zerbitzuak eta haurrek protagonismoa izateko.
- Sare-lana bultzatzea, eraikitzea eta sustatzea.
- Zerbitzua komunitatean eta lurraldean txertatzen laguntzea eta komunitateko eragile izatea.

**Besteekin koordinatuta:**

- Herriko baliabideak eta zerbitzuak ezagutzea.
- Udaleko beste sailen ezaugarriak eta jarduerak ezagutzea.
- Haurren bizitza garatzen den erakunde desberdinetan partaidetzazko egiturak bultzatzea.
- Haurrez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin koordinatzea.
- Sistemako zerbitzu desberdinen arteko etengabeko koordinazioa mantentzea, horretarako lurralde mailako hezitzaileentzako foroetan parte hartuz.

**Antolatutako Zerbitzua:**

- Zuzeneko esku-hartzearen antolaketan aktiboki parte hartzea.
- Datuak eta informazioa kudeatzea.
- Dagozkien administrazio-lanak egitea.
- Espazioaren eta denboraren antolaketa zaintzea.
- Baliabide materialak kudeatzea.



**SORALUZEKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

- Zerbitzuaren jarraipena egiteko sortzen diren organoetan parte hartzea.
- Esku-hartzea egiten duen lan taldearen koordinazioan parte hartzea.
- Lan taldearen dinamizazioaren barruan, zerbitzuaren garapen teknikoan eta antolakuntzan parte hartzea.

**Planifikatutako Zerbitzua:**

- Zerbitzuaren planifikazioan, sistemaren diseinuan eta lantzean parte hartzea.
- Zerbitzuaren programazioa eta eguneroko jarduera planifikatzea.
- Zerbitzuaren ebaluazioan parte hartzea.

Funtzio hauek guztiak betetzeko, hezitzaileek zeregin desberdinak izan ditzakete, lan taldeak, hezitzaile bakoitzaren lan jardunaren arabera, banatu ahal izango dituenak.

**Nerabeentzako Zerbitzua:**

**Nerabezaroa eta nerabeak:**

- Nerabeen beharrak ebaluatzeko prozesuan parte hartzea.
- Zerbitzuaren funtsatze fasean parte hartzea.
- Nerabe guztien parte-hartzea sustatzea, zerbitzuan eta beraiei eragiten dieten eremuetan.
- Nerabeei buruzko ideia positiboak sortzen laguntzea komunitatean eta inguruan.
- Nerabeen familiengana hurbiltzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste eragileei zerbitzuan parte hartzen laguntzea.

**Esku-hartze hezitzailea:**

- Nerabeen hezkuntza-premiak ulertzea, hezteko, laguntzeko eta eragina izateko.
- Zerbitzuaren zeharkako lerroak (Parekidetasuna, euskararen normalizazioa eta inklusioa) sendotzea.
- Prestakuntza eta trebakuntza-plana garatzen laguntzea.
- Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko konpromisoa hartzea.

**Hezkuntza-markoak:**

- Nerabeen beharretan eta eskaeretan oinarritutako programazioa garatzea, haien motibazioen, kezken eta ekimenen arabera.
- Zerbitzuaren ekintza-arloak aztertzea, osatzea, proposamenak egitea eta garatzea.

**Eremu komunitarioa:**

- Ikuspegi komunitarioa, osoa eta integratzailea, zerbitzuan garatzen diren jarduera guztietan txertatzea.
- Zerbitzuaren komunikazio-beharretan eta zabalkundearen laguntzea.
- Komunitatean parte hartzea, zerbitzuak eta nerabeek protagonismoa izateko.
- Sare-lana bultzatzea, erakitzea eta sustatzea.
- Zerbitzua komunitatean eta lurraldean txertatzen laguntzea eta komunitateko eragile izatea.

**Besteekin koordinatuta:**

- Herriko baliabideak eta zerbitzuak ezagutzea.
- Udaleko beste sailen ezaugarriak eta jarduerak ezagutzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin koordinatzea.
- Sistemako zerbitzu desberdinen arteko etengabeko koordinazioa mantentzea, horretarako lurralde mailako hezitzaileen foroan parte hartuz.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko sortzen diren organoetan parte hartzea.

**Antolatutako Zerbitzua:**

- Zuzeneko esku-hartzearen antolaketan aktiboki parte hartzea.
- Datuak eta informazioa kudeatzea.
- Dagozkien administrazio-lanak egitea.
- Baliabide materialak kudeatzea.
- Esku-hartzea egiten duen lan taldearen koordinazioan parte hartzea.
- Lan taldearen dinamizazioaren barruan, zerbitzuaren garapen teknikoan eta antolakuntzan parte hartzea.

#### **Planifikatutako Zerbitzua:**

- Zerbitzuaren planifikazioan, sistemaren diseinuan eta lanketan parte hartzea.
- Zerbitzuaren programazioa eta eguneroko jardura planifikatzea.
- Zerbitzuaren ebaluazioan parte hartzea.

Funtzio hauek guztiak betetzeko, hezitzaileek zeregin desberdinak izan ditzakete, lan taldeak, hezitzaile bakoitzaren lan jardunaren arabera, banatu ahal izango dituenak.

## **7.- ZERBITZUEN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA**

### **7.1. Egutegiak**

Zerbitzuek, gutxienez irailaren erditik ekainaren amaiera bitartean eman beharko dute arreta zuzena. Lan taldeak irailaren hasieratik erdi aldera planifikatu ahal izango du zerbitzua eta ebaluatu, aldiz, uztailaren hasieratik erdi aldera.

Jaiegunak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratutakoak) Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak Gipuzkoako Lurraldearentzat ezartzen dituenak izango dira. Jaiegun horiei tokiko esparruko jaieguna gehituko zaie.

Bai egutegia, bai ordutegia, programa berezien edo jardura jakinen ondorioz aldatu ahal izango dira. Zerbitzuaren erabileraren edo erabiltzaileen proposamenen arabera, egutegia eta ordutegiak aldatu ahal izango dira, eskaera berrietara egokitzeko, baina, horretarako, Udalaren oniritzia izan beharko da.

Zerbitzu bakoitzaren egutegiak desberdinak izan ahalko dira, zerbitzuen eta zerbitzua eskaintzen zaien erabiltzaileen ezaugarri jarraiki.

Egutegiak irailaren hasieran helaraziko zaizkio udal teknikariari.

Gabonetako eta udaberriko (Aste Santua) oporraldietan eskaintza berezia egingo zaie haurrei eta nerabeei, eskola egutegia kontuan izanik. Eskaintza hori, gutxienez, 6 ordukoa izango da oporraldi bakoitzean erabiltzaile bakoitzarentzat, beharrezkoa izango delarik oporraldi bakoitzean erabiltzaile bakoitzari gutxienez txango bat eskaintzea.

Esleipendunak egiten duten proposamenak Udalaren oniritzia jaso beharko du.

### **7.2. Ordutegiak**

Eskola garaian, zerbitzuen ordutegia, gutxienez, ondorengoa izan beharko da:

- Haurrentzako Zerbitzua: 2 ordu egunean, astelehenetik ostiralera, hortaz, 10 ordu astean.
- Nerabeentzako Zerbitzua: 2 ordu egunean, ostiraletan<sup>(5)</sup>, eta 3 ordu egunean larunbat eta igandeetan, hortaz, astean 8 ordu.



**SORALUZEKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

- (5) Orain artean, ostiraletan 2 orduko zerbitzua eskaini izan du LH5-LH6 mailetakoa haurrentzako zerbitzuak. Hori da esleipen-prezioa zehazterakoan kontuan hartu den ordu kopurua. Nolanahi ere den, litekeena da zerbitzua 2 ordutik 3 ordura luzatu behar izatea, baldin eta erabileraren ondorioz hori beharrezkoa ikusiko balitz. Hori gertatuz gero, esleipen-prezioari doikuntza egin beharko zaio hileroko likidazioak egiterakoan.

Egutegiaren eta egiten den ordutegien urteko ebaluazioaren arabera, aldaketak proposatu ahal izango dira hurrengo ikasturteetarako.

### **8.- EXEKUZIO EPEA**

Zerbitzua exekutatzen guztizko epea bi (2) urtekoa izango da, eta gehienez ere urtebeteko bi luzapen egin ahal izango dira. Horretarako, esleipendunak, kontratua edo urteko luzapena bukatu baino hiru hilabete lehenago eskaera egin beharko du, eta Udalak luzapena berariaz onartu beharko du. Nolanahi ere, kontratuaren guztizko iraupena, luzapenak barne, ezin izango da 4 urtetik gorakoa izan.

Epe hori igarota, uste izango da kontratista berandutzan sartu dela, eta Administrazioak ez du, alde aurretik, kontratua betetzeko agindua emateko beharrik izango.

### **9.- KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren aurrekontua urteko 98.722,26 €-koa izango da, BEZa sartuta. Licitatzaileek prezio hori hobetu ahal izango dute, beherapena eginda. Prezioa gainditzen baldin bada, aurkeztutako eskaintza osoa kanpo utziko da.

Kontratuaren aurrekontuak aldaketak izan litzake, pleguetako 6.1 atalaren (3), (4) eta 7.2 atalaren (5) oin-oharretan zehaztu direnak kontuan izanik.

Licitazioaren zenbatekoa kalkulatzekoan 12.000 euro aurreikusi dira jardueren kostuei aurre egiteko, 6.000 €-ko gastua, BEZ sartuta, Haurrentzako Zerbitzuaren (Ludoteka) programazio gastuetarako, eta beste 6.000 €-ko gastua Nerabeentzako Zerbitzuaren (Gaztelekua) programazio gastuetarako. Esleipendunak gastu hori justifikatu egin beharko du urtero, eta justifikatutako gastua ezin izango da aurreikusitako kopurua baino %15 gutxiago izan. Justifikatutako kopuruaren arabera behar diren doikuntza egingo da enpresari egin beharreko ordainketan.

Licitatzaileek, kontratuaren xedea dela-eta, egingo dituzten lanei buruzko azterketa ekonomiko xehakatu aurkeztu beharko dute, eta osagai desberdinen gastuak zehaztu beharko dituzte.

Aurkeztu diren proposamenetan banaturik zehaztuko dira oinarri zergapegarria eta BEZ zergari dagokion zenbatekoa. Hala, kontratuari dagokion BEZ zergaren tipoa eta zenbatekoa adieraziko dira, araudian ezarritakoaren arabera.

### **10.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK**

- |   |           |
|---|-----------|
| 1.- Prezioa:                                      | 48 puntu. |
| 2.- Haurrentzako zerbitzua kudeatzeko proiektua:  | 26 puntu. |
| 3.- Nerabeentzako zerbitzua kudeatzeko proiektua: | 26 puntu. |